



SAILBURUA  
LA CONSEJERA

Familia estimatuak:

Zirkular honen bidez jakinarazten dizuegu Arabako ikastetxeetako eskola-jarduera aldi baterako eteteko hartutako erabakiaren berri, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren jarraibideak betez. Etete horrek martxoaren 12tik 23ra iraungo du, egun hori barne.

Neurri hori aipatutako lurraldean bereziki eragiten ari den koronabirus-foku epidemiologikoak eragin du, gaixotasun horren transmisioa eta kutsatze-kopurua kontrolatzeko. Osasun Sailak bultzatutako neurriaren helburua koronabirusa ikasleen artean hedatzeari eustea da, koronabirusa eskala handiagoan transmititu ahal izatea saihestuz.

Osasun Sailak gomendatzen du ikasleek etxeko bizitza normala egin badezakete ere, ahal den neurrian saihestu dezatela taldeko jarduerak egiten diren esparru itxietan egotea. Era berean, osasun-agintarien gomendioak betetzeko eskatzen dizuegu, hartutako neurriek izurritea kontrolatzen lagunduko dutelakoan.

Ikastetxeek zabalik izango dituzte familiekin komunikatzeko ohiko bideak, horri buruzko informazio eguneratua helarazteko.

Adeitasunez, 2020ko martxoaren 11an.

  
  
HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Cristina Uriarte Toledo  
Hezkuntzako Sailburua